

AINTZINAROKO ERROMA JATORRIETATIK ARO BERANTIARRERA

MONARKIA → ERREPUBLIKA → INPERIOA (753 K.a. – 476 K.o.)

1. ERROMA JATORRIETATIK AUGUSTO ARTE

1.1 MONARKIA ETA ERREPUBLIKA ARKAIKOA

VIII-VI. mendeetan, hainbat kultura zabaltzen ziren Italian zehar; Etruskoak Toskanan kokatzen ziren eta LIGA ETRUSKOA osatzen zuten. GREKOEK hegoaldea kontrolatzen zuten, magna greziako koloniak (Sizilia). Latinoek erdialdea hartu zuten, LIGA LATINOA osatuz. Gainera, Sabinoak, Samnitak, Oskoak, Umbroak... Italikoak ere aurkitzen ziren.

ERROMAREN SORRERA

Tradizio literarioaren arabera, TITO LIVIO (Ad Urbe condita liburua) erromatarra eta DIONISIO greziarra iturri garrantzitsuak izan ziren. III mendean tradizio analistikoaren bitartez, idazleek idatzitako pasarteak TITO eta DIONISIOREN bitartez heldu zaizkigu guri.

Arkeologikoki, VIII. mendean etxola herrixka bat ageri zen Palatino mendixkan. VII. mendean ordea, Erromak jada polis itxura hartu zuen eta VI. menderako, hainbat aldaketa agerian ziren; foroa dreinatuta zegoen (mendixka arteko lurra siku) eta eraikin publikoak ageri ziren. Zalantzak daude benetako sorreraren inguruan, sorkuntza ala sinezismoa?

MONARKIA

Tradizio analistikoaren bitartez, informazio ugari jaso dugu garai hau eta bere funtzionamenduaren inguruan. Hala ere, askotan zalantzan jarri da informazio hau, izan ere, istorio koherentea izateaz gain, ez da gatazkarik ageri eta errege estereotipatuak gailentzen dira.

Alabaina, informazio historikoak baieztatzen digu VII-VI. mendeetan monarkia existitu zela Erroman, eragin etruskoa nabaritzen dela. Epigrafia baliabide gisa, 'Lapis Niger' aurkitu zenean lehen latindar inskripzioa aurkitu zen. Bertan, 'errege' hitza agertzen zen, monarkia konfirmatuz.

- Gizartea

Familiako unitateak garrantzi handia hartu zuen eta, 'domus' baten inguruan antolatzen zen sistema patriarkala zen. Bertako burua PATER FAMILIAS zen, familiako gizon heldu zaharrena izaten zena (aita, aitona...).

Gainera, hainbat familia batzen zituen unitate bat existitzen zen GENS zeritzona. Hori NOMEN izenarekin izendatzen zen, familiaren abizena edo izango zena.

- Gizartearen eta hiritarren antolaketa

PATRIZIOAK>Erroma sortu zuten familiak ziren, aristokrazia heredagarriak. Horrela, GENS batzuk PATRIZIOAK ziren eta botere politiko, erlijioso eta ekonomiko handia izaten zuten.

PLEBEIOAK>patrizioak ez ziren GENSak ziren; batzuk patrizioen klienteak izaten ziren (menpekotasuna) eta horren truke babesia lortzen zuten. Beste batzuek lanbide alternatiboak zituzten, hala nola, merkatariak, artisauak...

Gainerako hiritarrak beste antolamendu baten baitan funtzionatzen zuten. TRIBUA zen oinarrizko unitatea eta Erromako lurraldearen zonetan banatzen zen, territorialki. Tribu bakoitza 10 CURIAZ (senatuaren egoitza) osatzen zen.

Hasieran, 3 tribu existitzen ziren baina denbora aurrera joan ahala, geroz eta gehiago agertzen joan ziren, errepublika garaian 35era iritsi arte (4 urbano eta 31 landa).

ABERASTASUNAREN ARABERA, 5 urtean behin errolda egiten zen, biztanleak eta beraien aberastasuna zenbatzeko. Horrela, CENTURIATAN banatzen ziren (3); lehenik, SUPRACLASSEM zegoen, diru gehien manejatzen zuten biztanleak. Ondoren, CLASSIS centuria, gehiengoa zena. Azkenik, INFRACLASSEM edo PROLETARII, diru gutxien izaten zutenak.

CENTURIEN arabera osatzen zen armada ere, esaterako, INFRACLASSEMeko biztanleek ezin zuten armadan parte hartu.

- Sistema politikoa

REX>erregea zen eta horrek, botere politikoa, erlijiosoa eta militarra zuen. Kargu hau bizi osorako zen eta ez zen heredagarria, herriko senatuak aukeratutakoa baizik, nahiz eta erabaki hori comitiak onartu behar zuen aklamazioz (txalo, zarata).

INTERREX>erregea ez zegoenean (aukeraketa garaian adibidez), bere ordezkoa izaten zen eta aldatzen joaten zen.

SENATUS>erregearentzat aholkularitza ganbera zen eta bertan patrizioak, gizonak, zaharrak edota prestigiozko pertsonak batzen ziren. Hasieran, 100 senatari zeuden baina 300 izatera pasatu ziren.

COMITIA>asanblada forma zen, nahiz eta forma desberdinetan ematen zen hau.

Arkeologikoki, VI. mendeko CURIA (senatuaren egoitza) eta COMITIUM (comitiaren egoitza) aurkitu ziren.

- Sistema erlijiosoa

Numa Pompilio 2. erregeak asmatu zuela uste da. Apaizak beti kolegiatuak ziren sistema bat zen eta horrela, 'collegia' desberdinak eratu ziren.

PONTIFICES>'collegia' garrantzitsuenak ziren eta zuzenbide erlijiosoaren buru ziren. Egutegia kontrolatu eta gertaerak apuntatzeaz arduratzen ziren. 'Collegia' honen buruzagitza PONTIFEX MAXIMUS figurak hartzen zuen.

AUGURES>jainkoen nahiak interpretatzen zituen taldea zen eta hori modu desberdinetan egiten zuten, hala nola, txoriak behatuz.

FLAMINES>jainko konkretu bat gurtzen zuten eta tenplua babesteko ardura ere hartzen zuten.

VESTALES>emakumeen 'collegia' zen eta etxeko su sakratua zaintzea zuten arduratzen, 'Vesta' ren tenpluan. Horretarako, "virgen" pribilegioak izan behar zituzten.

Arkeologikoki, VI. mendeko IOM tenplua aurkitu zen, 'Iuppiter Optimo Maximo' zen jainko nagusiari eskainia. Horrela, garai horretan TRIADA CAPITOLINA gurtzen zela deskubritu zen, hiru jainkoak JUPITER, MINERVA eta JUNO zirela.

Beste aurkikuntzei dagokienez, foroan VESTAren tenplua eta REGIA aurkitu ziren, azken hau erregearen egoitza izatetik PONTIFEX MAXIMUSen egoitza izatera pasatu zela.

ERREPUBLIKA ARKAIKOA (K.a. 509-287)

Monarkia amaitu zenean, erregeak batuta zuen boterea banatu egin zen; REX SACRORUM figurak botere erlijiosoa hartu zuen eta 2 kontsul sortu ziren botere militarra eta politikoa bereganatzeko. Bestalde, apaizak, senatua eta asanbladak mantendu egin ziren.

- Patrizio/plebeioen arteko gatazka

Patrizioek AGER PUBLICUS (Erromak konkistatutako lur publikoak) okupatu zituzten eta plebeioei maileguak egiten zizkien, zorrak sortuz.

Plebeioak geroz eta gehiago ziren eta eskakizun konkretuak zituzten, hala nola, zorrak ezabatzea, lur berriak lortzea edota politikan parte hartzea.

Interes kontrajarri horiek gatazka sortu zuten 494an, 'Secessio in monte Sacrum'. Horrela, eskakizunak bete ezean Erromatik Aventinora joango zirela manifestatu zuten. Bertan, errepublika propioa sortu zuten, magistratu propioekin; 'Tribunus plebis' tribunoei zeritzen, 'concilium plebis' asanbladari eta 'Ceres, 'Liber' eta 'Libera' tenpluak zaintzeko.

Hala ere, Erromako armada oso txikia gelditu zenez, plebeioak konbentzitu eta Erromara itzuli ziren, eta izendatutako magistratuak mantendu zituzten.

- 451-450 urteak, 'XII taulen legea'

Plebeioek legeak idaztea eskatu zuten eta 'Decenvirie', 10 gizoneko talde batek idatzi zituen, batez ere, zorrak, familia, epaiketak edota herentziaren inguruan. 10 gizon horiek, ordea, patrizioak ziren eta beraien aldeko legeak egin zituzten, geroz eta botere gehiago irabaziz. Horrela, 'Decevirie'n aurkako iraultza bat eman zen, boteretik kendu zituena. Gatazkak 287 arte jarraitu zuen.

Plebeioek beraiek magistraturak Erroman integratu nahi zituzten. Horrela, konstituzioan onartu ziren, baita plebeioen asanbladan erabakitako PLEBEZITOAK (legeak) ere. Zentzu horretan, ERROMAKO KONSTITUZIO KLASIKOA eraiki zen, elementu monarkikoak plebeioen eta patrizioen oinarriekin elkartzen zituena.

Erromak lurrak konkistatzen jarraitzen zuen eta lur berrietan koloniak eraikitzen zituen. Zentzu horretan, plebeioek zorrak ezabatu eta lurrak banatzea nahi zuten. Ez zuten zorrak kentzea lortu baina egoera hobetu zen, lur berriak eskuratu baitzuten. Hala ere, latifundio handiak sortu ziren eta esklabutza handitu zen.

Boterean parte hartzea handitzea zen beste helburuetako bat. Horrela, magistraturak plebeioei eta apaizgoari zabaldu zitzaizkien eta 287an NOBILITAS patrizio-plebeia sortu zen (plebeio batzuk elite bihurtu) eta gainerako populazioa 'plebe' bezala gelditu zen.

- Italiako konkista

Errepublika garaian hiri txiki bat izatetik ia Italia guztia konkistatzera pasatu zen Erroma, eta prozesu horren baitan hainbat gerra eman ziren.

Garai honetan, lur berrien integrazioa emateko modu desberdinak eman ziren, konkisten ondoren Erromaren parte izaten zirenak.

1) 'AGER ROMANUS' ZABALDU>Erromako lurraldea zabaltzean datza, magistratuak zein hiriak zabalduz, eta tribu berriak sortuz.

2) 'MUNICIPII' SORTU>Erromatar hiritarrek osatzen zuten 'res publica' zen, herri bat bezalako. Erromatik banatuta ulertzen zen eta barne autonomia eskuratzen zuten.

'CIVITATES OPTIMO IURE'>Erroman bozkatzeko ahalmena zuten.

'CIVITATES SINE SUFFRAGIO'>Ezin zuten Erroman bozka eman.

3) 'COLONIAE'>Lurralde berrietan hiriak sortzea da, eta hau forma desberdinetan eman zitekeen.

'COLONIAE CIVIUM ROMANORUM'>Erromatarrek aurkitzen ziren kolonia horretan eta helburu militarra izaten zuten.

'COLONIAE LATINAE'>Eskubide batzuk eskuratzen zituzten koloniak ziren, hala nola, 'ius conubium' ezkontzarako eskubidetzat, 'ius commercium' merkataritzarako eskubidetzat, 'ius migrandi' Erromako hiritar bihurtzeko eskubidetzat edota 'auxilia' Erromari laguntza militarra emateko edota armadak integratzeko eskubidetzat.

4) 'CIVITATES FOEDERATAE (lehenagotik sortuta)'>'foedus' hitzarmenari deritzo. Horrela, hitzarmen baten bitartez, autonomia lortzen zuten hiriak ziren, nahiz eta Erromak betebeharrak ezartzen zizkien, zergak ordaindu eta laguntza militarra ematea eskatuz. 'Soci' zeritzen bertako biztanleei.

1.2 ERDI ERREPUBLIKA (K.a. 287-133)

III. mende hasieran hasi zen garaia izan zen eta hainbat arrazoik eragin zuten bere sorreran, hala nola, patrizio-plebeio gatazkaren amaierak edota I. Gerra Punikoak (264). Amaiera, ordea, Tiberio Senpronio Grakoren tribunatuak eta 146an Korinto eta Kartagoren hartzea zein 133an Numantziakoak markatu zuten.

Hainbat prozesu eman ziren garai honetan, hala nola, ERROMATAR KONSTITUZIO ERREPUBLIKANOA eta eliteen arteko adostasuna edota kanpora begira, Erromaren hegemonia zen mediterraneoan hedapena.

ERROMATAR KONSTITUZIO ERREPUBLIKANOA

'Regnum' (pertsonei botere guztia) existitzea ekiditea nahi zuten eta 'Libertas populi romani' ezarri zuten, politikan parte hartzeko eskubidea emanaz. Gainera, kontra-orekak jarri zituzten, botereen artean mugak eta konpentsazioak ezarriz.

Greziarren begiz, senatuak aristokrazia errepresentatzen zuen, asanbladak demokrazia eta magistratuek monarkia. Horrela, konstituzio mistoa zela esan daiteke.

- Senatua

Kontsulta-kontseilu aristokratikoa zen, patrizio eta plebeioz osatua. Alabaina, senataria izateko magistratua izan behar ziren iraganean. Partaideak zentsoreak aukeratzen zituen eta bizi osorako postua zen.

'Curia'n biltzen ziren senatuko 300 partaideak, eta legeak eztabaidatzen zituzten; magistratuek galdetzen zien eta 'senatus consultum' deituriko agirian beraien iritzia argitaratzen zen. Iritzi hau, ordea, ez zen loteslea, hau da, ez zen derrigorrez bete behar, baina 'autoritas' bezala, iritzi garrantzitsua zein errespetatua izaten zen.

Dirua ere kontrolatzen zuten eta Italia militarki kontrolatzearen ardura ere zuten.

- Magistratuak

Denak hautatuak izaten ziren eta behin behineko postuak izaten ziren, normalean urte bat irauten zutela. Kolegiatuak izaten ziren, beti taldeetan biltzen ziren pertsona bat baino gehiago, eta hierarkikoak mailak desberdintzen zirelako. Doakoak nabarmentzen ziren, ez zuten soldatarik jasotzen baina magistraturak erabiltzen zituzten aberastasunak lortzeko, nahiz eta kargua amaitzean epaia izan zezaketen.

Espezializatuak izaten ziren, funtzio desberdinekin.

1) ZENSOREAK 'CENSORES' > Magistratura gorena zen eta 2 zentsore gailentzen ziren, 18 hilabetetarako karguarekin bakoitzak. 5 urtetan behin aldatzen ziren, hau da, 18 hilabete zentsoreak egoten ziren eta beste 42 hilabetetan ez.

Eginkizun nagusia errolda egitea zen, herritarrak eta aberastasunak kalkulatzu, baina barnean hainbat lan espezifiko zeuden.

'LECTIO SENATUS' figurak senatariak aukeratzen zituen.

'RECOGNITIA EQUITUM' karguak zaldunak aukeratzen zituzten.

'CURA MORUM' figurak ohiturak kontrolatzen zituen, jendea moralki kontrolatuz.

Gainera, lan publikoak eta tributoak ere kontrolatzen zituzten zentsoreen barnean.

2) KONTSULAK 'CONSULES' > 2 konsul existitzen ziren eta urte bat irauten zuen karguak, urteari izena ematen ziotela. Botere militar eta zibila eskuratzen zuten, 'magistratus cum imperium'. Eginkizun bezala, asanbladak eta senatua deitzen zuten eta legeak proposatzen zituzten.

3) PRETOREAK 'PRAETORES' > hasieran 2 hasi baziren ere, ondoren gehiago izaten joan ziren. Eginkizuntzat zituzten justizia eta tropak zuzentzea.

4) EDILAK 'AEDILES' > 2 plebeio eta 2 patrizio izaten ziren kargu honetan eta eginkizuna Erroma zaintzea zen, kaleez, arkitekturaz eta abarrez arduratzen zirela.

5) KUESTOREAK 'CUESTORES' > hasieran 2 baziren ere ondoren 10 pertsona izatera pasatu ziren. Horiek finantzak gestionatzen zituzten baina kargu hau betetzeko baldintza bat zegoen; armadan 10 urte pasatu izana.

6) PLEBEAREN TRIBUNOA > hasieran 2 pertsona ziren baina gerora 10 izatera pasatu ziren. Botere zabala zeukaten; senatu zein plebearen asanbladak deitzen zituzten eta 'plebiscita'k (legeak) proposatzen zituzten. Beto eskubidea zeukaten, zerbait plebearen interesen aurka bazihoan, eta gainera, 'sacrosantitas' existitzen zen, hau da, tribunoari eraso egitea delitu politiko eta erlijiosotzat hartzen zen.

*7) DIKTADOREA > egoera kritikoetan erabakiak hartzeko ezartzen zen. Kolegiatua ez zen kargu bakarra zen (pertsona bakarra!) eta 6 hilabete irauten zituen. Senatua eta konsulak hautatzen zituen.

- Asanbladak

Botere forma honek lege guztiak eta magistratuak bozkatzeko zituen, eta autonomia txikia eskuratzen zuten, nahiz eta magistratuen menpe egon.

1) 'COMITIA CURIATA' > 'Curia' n biltzen ziren eta botere gutxi eskuratzen zuten. Zuzenbide pribatua (familia...) eta magistratuak aklamazioz epaitzen zituzten.

2) 'COMITIA CENTURIATA' > 193 zenturia (unitatea) existitzen ziren, klasetan banatuta, eta izaera militarra izaten zuten. Magistratu nagusiak hautatzen zituzten eta gerra bakea bozkatzeko zuten. Aberatsenek zenturia gehiago izaten zituzten eta ondorioz, botere gehiago erabakietan.

3) 'COMITIA (POPULI) TRIBUTA' > 35 tributan banatzen zen eta eginkizuntzat zuten magistratura txikiak hautatzea eta legeak bozkatzeko.

'COMITIA PLEBIS TRIBUTA' > jatorria 'concilium plebis' plebeioen asanbladan zuen eta ez zuen patrizioen parte hartzea barne biltzen. Horiak plebearen tribunoa deitzen zuten, eta eginkizun nagusiak magistratu plebeioak aukeratzea eta plebiszitoak (legeak) bozkatzeko ziren.

4) 'CONTIONES' > eztabaidarako bilera politikoak ziren eta ez-hiritarrek ere parte hartu zezaketen. Magistratuak kontrolatzen zituzten, baina eztabaidatik haratago, ezin zituzten erabakiak hartu.

ERROMATAR INPERIALISMOA

Mediterraneoko konkistaren barnean, hainbat gatazka eta gerra eman ziren.

- Gerra Punikoak

Lehen Gerra Punikoa K.a. 264-241 artean gertatu zen eta Kartagoren aurka borrokatu zen Erroma. Inperioko lehen probintziak eskuratu zituen horrela Erromak, Sizilia eta Sardinia izan zirenak.

Bigarren Gerra Punikoa 218 eta 201 artean eman zen, Kartagoren aurka ere. Erromaren hegemonia gailendu zen Mediterraneoren Erdi eta Mendebaldean zehar. Gainera, 2 probintzia berri eskuratu ziren, Hispania Citerior eta Ulterior.

Hirugarren Gerra Punikoa K.a. 149tik 146ra luzatu zen eta Kartago suntsitzea lortu zuten erromatarrek, Afrikako probintzia osatuz.

- Gerrak Hispanian (K.a. 155-133)

Erromatarrek ZEITIBERIARREN eta LUSITANOEN aurka borrokatu zuten, Hispaniar probintziak zabaltzeko asmotan.

- Gerra Mazedonikoak (K.a. 215-146)

Mazedoniako Erreinua eta Liga Akeoaren aurka jardun zuten erromatarrek, Mazedoniaren konkista lortuz eta Mazedoniako probintzia izendatuz. Hala ere, 146an Liga Akeoaren altxamendua eman zen.

- Gerra Siriarra (K.a. 192-188)

Erroma Seleuziar Inperioren kontra aritu zen, baina garaipenetik urrun, APAMEAKO BAKEA sinatu zuten bien artean. Horrela, Siria erromatar protektoratua izango zela adostu zuten, eta baita Pergamoko erreinua zabalduko zutelako ere (aliatua zen).

- Pergamoko erreinua (K.a. 133)

Erreinu honetako erregea hil zenean, herentzian Erromari eman zion boterea eta horrela, Asiako probintzia sortu zuten.

1.3 ERREPUBLIKAREN KRISIA

Errepublikan krisia hasi zen, izan ere, inperialismoaren gorakada nabaria ematen ari zen eta irabazien banaketa desorekatua zen. Horrela, elitea eta herritarren arteko dikotomia handitu zen. Krisi honen ondoren INPERIO garaia gailendu zen.

Italiako aliatuek Erromari dirua eta tropak eman behar izateak asko haserrearazten zituen. Gainera, erromatar elitearen barnean gatazka ematen ari zen, batzuk besteen gainean kokatzen zirelako botereari zegokionez. Ezohiko egoera guzti horiek biolentzia testuingurua ekarri zuten.

NEKAZARITZA KRISIAK asko markatu zuen krisi hau, izan ere, Erromako ejertzittoa osatzen zuten pertsonak hiritarrak zein aliatuak ziren. Horrela, sortutako haserreak ejertzittoa ere eragin zuen.

TIBERIO SENPRONIO GRAKO

Grako 133an plebearen tribunoa izan zen eta plebiszitu bat proposatu zuen, LEX SEMPRONIA deiturikoa. Lege honek latifundioak mugatzen zituen, lur publikoak soilik egoteko. Soberan zeuden lur publikoak, AGER PUBLICUS, hiritarren artean banatu zituen eta hiritarrei horiek ustiatzeko aukera eman zien.

Berak bazekien senatuak ez zuela hori onartuko, senatariak latifundistak zirelako eta ez zitzaielako interesatzen, beraz, lege hau asanbladetan aurkeztu eta bertan onartu zen, senatutik pasa gabe. Honek plebearen boterea indartu zuen, baina oposaketa handia izan zuen heinean, Senpronio Grako hil egin zuten. Gainera, LEX SEMPRONIAren aurkako neurriak hartu zituzten eta ez zen martxan jarri.

10 urte beranduago, Kaio Senpronio Grako plebeio bihurtu zen baina beste neurri mota batzuk hartu zituen:

- Plebeziaren pobretzearen kontra → lan publikoa onartu eta 'frumentationes' ezarri zuen (erromatar hiritarrentzat gari banaketa).
- Lurraren arazoa → Italiatik kanpo zeuden AGER PUBLICUSak kolonia bihurtu eta hiritarrei lurra eman zizkien, Kartago esaterako.
- Italiako integrazioa hobetu zuen, hiritartasuna eman nahi zien eskubide gehiago izateko, eta senatuaren boterea mugatzen saiatu zen.

Honen aurrean, senatuak 'Senatus consultum ultimum' sortu zuen; sistema honekin, hiritar bat seinalatu eta arriskuan jar zezakeen, eta modu honetan hainbat hiritar hil ziren, horien artean Kaio.

- Ondorioak

Epe laburrean, erreformaren kontrako legeak argitaratu ziren eta GRAKOEN jarraitzaileen aurkako errepresioa handitu zen.

Epe luzean, biolentzia eta ezohiko tresnak normalizatu ziren. Gainera, elitea banatu egin zen barne kohesioa hautsiz ('populates' eta 'optimates'). Horrela, plebeak geroz eta botere politiko gehiago bereganatzen joan zen eta horrek zeuden arazoak areagotu zituen, hala nola, lurra, italiakoak, armada...)

ARMADAREN ERREFORMA (107)

'Bellum lugurtinum' (112-105) deituriko gerra bat eman zen eta zaila egin zen soldaduak gerra honetan parte hartzea. Kaio Mario momentu horretako gizon garrantzitsuena izan zen; kontsula

izan zen eta magistratura errepikatu zuen, berez egin ezin zena. 107an, lugurtara joateko esan zioten gerra irabazteko eta PROLETARII-ak eraman zituen bertara, hiritar pobreenak. Horren truke, armak, soldata bat eta gerra amaitzean urte batzuk lortuko zizkietela esan zieten.

Honekin, erreklutatzearen arazoa amaitu zen baina lurren arazoak jarraitzen zuen, izan ere, 15 urtetara lurrak emango zietela esan zieten baina ez zuten inoiz lur hori ikusi eta arazoak gora egin zuen. MARIO (jenerala) zen lurrak ematearen arduradun eta ondorioz, jeneralek geroz eta botere gehiago izango zuten soldaduen fideltasunagatik, lurren promesak zutik jarraitzen zuelako.

ALIATUEN GERRA (K.a. 91-88)

Erromak aliantza desberdinak zituen Erromarekin, baina nagusiki zergan eta tropak ematen zizkion. Hala ere, hiritartasuna lortzeko eskaera egina zuten italikoek.

91. urtean, saiakera potolo bat egin zuten baina porrot egin zuen heinean, gerra hasi zuten Erromaren aurka. Erromak erantzun egin zuen, altxatu ez ziren hirietako biztanleei hiritartasuna emanaz. Garaipena eskuratu ostean, guztiei eman zien hiritartasuna, bere menpe zeudenean.

GERRA ZIBILA (K.a. 88-81)

Eliteen banaketa eman zenean, 'populares' eta 'optimates' eliteen artean banatu ziren eta bi bandoen arteko gerra zibila eman zen.

- Populates

GRAKOTARREN neurrien aldeko elitea ziren eta plebearen babesaren babesa bermatzea nahi zuten, boterea indartuz (lurrak eman, erreformak...). Erreformatik, ordea, inperioaren irabazien banaketa orekatuago bat egiteko bidean nahi zituzten. Talde honen burua zen KAIO MARIO.

- Optimates

Senatuaren botere tradizionala babesten zuten elitea ziren, eta irabazien banaketa mugatua nahi zuten, senatarien artean. Gainera, errepublikaren antolaketa tradizionalaren alde egiten zuten. Horien burua SILA zen.

SILAREN DIKTADURA (K.a. 81-80)

Erreforma kontserbakorrak egin zituen eta orokorrean, senatuaren boterea indartu zuen.

Popularesen aurkako errepresioa sustatu zuen; lurrak kendu zizkien eta soldadu beteranoei eman zizkien. Gainera, proskripzioak sortu zituen, zerrenda publikoak zirenak, eta bertan agertuz gero, edozeinek hil zintuzkeen.

Senatua handitu zuen, 600 partaidetik 900era igoz. Bertan, bere jarraitzaileak, familia desberdinak... sartu zituen. Horrela, plebea ahuldu zuen, tribunoari botereak kenduz.

Magistraturak arautu zituen, 'cursus honorum' ezarri. Horrela, adina, denboralizazioa... neurtu eta arautu zituen.

Neurri guzti horiek ezarri ondoren, erretiratu egin zen bere kargutik, eta urte batzuetako lasaitasuna eta egonkortasuna ekarri zuen.

PONPEIOREN GORALDIA (K.a. 70-60. hamarkada)

Silaren jarraitzailea zen PONPEIO, eta hainbat gertakarik bere izena goratzea eragin zuten.

- Sertorioren gerra Hispanian (82-72)→SERTORIO (MARIOREN jarraitzailea) Hispanian aurkitzen zen, eta PONPEIOK garaitu egin zuen (Ponpaelo, Iruñea sortu).
- Esklabuen 3. gerra (73-72)→Sizilian gerrako esklabuak altxatu egin ziren, Espartako buru zena. Hala ere, Ponpeiok eta Crasok aurre egin zien eta irabazi egin zuten.
- Piratan mediterraneoan(67-66)→itsasoan merkataritza lapurtzen zuten piratak ibiltzen ziren mediterraneoan zehar eta arazo bihurtu ziren Erromaren horniketarako. Ponpeiok boterea eskuratu ostean, denbora gutxian ezabatu zituen horiek.
- Mitridates Pontokoa (66-63)→Ekialdeko gerra bat solbentatu zuen eta garaitu egin zuen.

Ponpeio geroz eta famatuagoa egiten ari zen eta senatuak geroz eta botere gehiago ematen zion. Piraten gatazkan, IMPERIUM MAIUS titulua eman zioten, armada guztien kontrola ahalbidetu ziona. Mitridatesi, ordea, MAGNUS titulua eman zioten, Alejandro Handiaren postu berdinean kokatzen zuela.

Aliantza asko sortu zituen probintzietako komunitateetan eta horiei klientelak deitu zien, esaterako Egipto.

LEHEN TRIUNVIRATOA (60-53)

3 gizonen arteko aliantza bermatzen zuen hitzarmen informalarri zeritzon TRIUNVIRATO, eta kasu honetan, PONPEIO, CRASO eta ZESARREN artean egin zuten.

- Ponpeio

Hispaniako lurra eman zuen eta beteranoentzat lurrak lortu zituen. Juliarekin ezkondu zen, Julio Cesarren alaba.

- Craso

Hiruretatik aberatsena zen eta dirua jarri zuen bozkak irabazteko eta triunviratoan sartzeko. Siriako lurrak eman zituen eta urte batez kontsulatu izan zen Ponpeiorekin batera.

- Zesar

Marioaren jarraitzailea (populares) zen eta geroz eta fama handiagoa bereganatzen zihoan, batez ere plebearen artean. Iraganean edil izana zen eta 59an kontsulatu bihurtu zen. Ondoren, 58-51 artean Galiako eskualdea konkistatu zuen, senatuaren babes gabe.

TRIUNVIRATO honek krisia sufritu zuen 53. urtean, izan ere, KRASO hil egin zen eta PONPEIO alargun gelditu zen. Bestalde, ZESARREK kontsul izatea nahi zuen eta senatua botere hartze horren beldur zenez, Erromara ekarri zuten epaitzeko asmoz.

Horrela, 52. urtean, senatua PONPEIOren alde agertu zen eta ZESAR Erromara itzuli zen tropekin. 49. urtean RUBIKON gurutzatu zuen ('alea jacta est' esaldiaren jatorria).

GERRA ZIBILA, PONPEIO vs ZESAR (K.a. 49-45)

Ponpeio zein senatuak Erromatik ihes egin zuen eta ekialdeko aliantzetan babestu ziren. Beste aldetik, Zesarrek bi garaipen garrantzitsu lortu zituen, 48an Farsalia eta 45ean Munda. Gertaera horien bitartean, Ponpeio Egiptora joan zen eta bertakoek burua moztu zioten, ondoren Zesarri emateko. Zesar, ordea, haserretu egin zen, ez baitzuen Ponpeio hiltzerik nahi.

ZESARREN DIKTADURA (46-44)

10 urterako diktadore izendatu zuten eta botereak akumulatzen joan zen: pontifex maximus, kontsul, diktadore...

44an, ordea, bizitza osorako diktadore izendatu zuten, hainbat neurri hartu zituelarik.

Plebearen aldeko neurri sozial eta ekonomikoak hartu zituen, plebearen babesa lortzeko asmotan.

Inperialismo berri bat eraman zuen aurrera; lurretan koloniak egin zituen eta lur horrek banatu egin zituen erromatarren artean. Gainera, erromatar hiritartasuna zabaldu zuen.

Boterearen oinarri zabaldu zuen, kargu berriak sortuz. Magistratuen erdia berak aukeratzen zuen eta beste erdia asanbladak. Betiere, bere nagusitasuna bermatzen zuen.

Erromatarrek REGNUM izatearen beldur ziren, botere pertsonal asko baitzuten. Egoera horretan, senatari talde batek konplot bat egin zuen eta Zesarren hilketa adostu zuten. 44ko martxoaren 15ean hil zuten.

Egoera horren aurrean, elitea 2 zatitan banatu zen:

- Anti zesartarrak

Senatuaren gehienak parte hartzen zuen, 'auctoritas' eta botere zibila zuena.

BRUTO eta KASIO senatariak, konplotaren buru eta hiltzaileak izan zirenak (gertaeraren ondoren ekialdera joan ziren).

SEXTO PONPEIO, Ponpeioren semea zena eta Hispanian zegoen.

- Zesartarrak

MARCO ANTONIO, kontsula zen eta harremana izan zuen Zesarrekin, tropak gidatzen zituela.

EMILIO LEPIDO, 'Magister Equitum' zen eta tropak izaten zituen.

JULIO ZESAR (OKTAVIANO), Zesarren adopzio-semea zen eta bere ondorengotza zein tropak heredatu zituen.

BIGARREN TRIUNVIRATOA (43)

Hitzarmen honen buru atera ziren MARCO ANTONIO, EMILIO LEPIDO eta JULIO ZESAR. Gainera, asanbladak ofizial egin zuen agintaldi hau eta lurraldeak banatu zituzten. Ondoren, gerra egin zuten anti-zesartarren aurka.

42. urtean, Filiposeko guduan garaipena lortu zuten anti-zesartarren aurka (BRUTO/KASIO hil). Gertaera honen ondoren, triunviratoa berriztu zuten eta botere banaketa berrikusi zuten.

- Oktaviano → Italia eta mendebaldea kontrolatzen zuen eta SEXTO PONPEIOren aurka gerra egin zuen. Horrela, Erroman aliantzak lortu zituen
- Marco Antonio → Ekialdeko lurak eskuratu zituen eta Oktaviarekin ezkondu zen, Oktavianoren arreba zena. Gainera, Egipton aliantza egin zuen Kleopatrarekin, baita berarekin semeak izan ere.
- Emilio Lepido → Afrikako lurraldea tokatu zitzaion eta hasieratik baztertuta sentitu zen.

OKTAVIANO vs MARCO ANTONIO

38an triunviratoa berriztu zuten, baina 36an LEPIDOK (apaiz sartu zen) OKTAVIANOREN kontra egin zuen. Oktavianok irabazi zuenez, Afrikako lurraldea berarentzat izan zen.

33. urtean, MARCO ANTONIO eta OKTAVIANOREN arteko aliantza apurtu egin zen eta bien arteko irain kanpaina hasi zuten. Egoera horretan, OKTAVIANOK gerra deklaratu zion Egiptori (funtsean, Marco Antonioren aurka).

31n, 'actium' itsas bataila eman zen eta Oktavianok Marco Antonio eta Kleopatra garaitu zituen. 30. urtean Alexandrian inguratu eta Kleopatra zein Marco Antoniok bere buruaz beste egin zuten, Egipto erromatar probintzia bilakatu.

2. ERROMATAR INPERIOA

2.1 GOI INPERIOA

Oktaviano agintari bakarra bihurtu zen eta 27an errepublikaren berrezarkuntza eman zen; Oktavianok bere botere guztiak senatuari eman zizkion eta ekintza umil honen aurrean, senatuan AUGUSTO titulua eman zion bueltan (sokratua). Horrela, Oktavianok izena aldatu zuen eta AUGUSTO jarri zuen.

Ez zuen bere burua erregetzat izendatu eta errepublika zein senatua mantendu zituen, bere botere osoa onartzen zela (ilegalitateak ahaztuz).

Senatuak 'Clipeus Virtutis' ezkutua ere eman zion AUGUSTORI, herriaren bertuteak batzen zituena. Honakoak ziren horiek:

VIRTUS>gerrarako ausardia azpimarratzen zen, jeneral garaitzat aurkeztuz.

CLEMENTIA>etsaiak barkatzeko gaitasuna azpimarratzen zuen.

IUSTITIA>'bellum iustum', erromatarren aurkako gerrarik ez egitea garrantzitsua.

PIETAS>nagusiekiko miresmena bultzatzen zuen (gurasoak, jainkoa...), erlijioaren beharrezkotasuna azpimarratuz. Horrela, Gerra Zibila justifikatu zuen, bere aitaren mendekua lortzeko egin zuela esanez.

Erroman monarkia ezarri zuen, baina errepublikaren itxura mantendu zuen, propaganda eta erakundeen bitartez, eta baita bere boterea errepublika-formetan adieraziz ere.

BOTERE ZIBILA

'Princeps senatus', senatuaren kontrola zuen eta bera zen lehen hizlaria.

Askotan izan zen kotsula, nahiz eta behin uko egin zion eta ordeztu, 'tribunitia potestas' izendatu zuen, plebearen tribunoaren botereak hartuz. Zentsorearen botereak ere eskuratu zituen.

Justizia instantzia gorena izendatu zuen, berak zuela justiziaren baitan azken hitza.

'Pater patriae', aberriaren aita izendatu zuen, aitaren figura boteretsua herrialde osoko lurraldeetan zabalduz.

BOTERE ERLIJIOSOA

'Pontifex Maximus', apaizen arteko burua izendatu zuen, legeak eta egutegia kontrolatzen zuela.

Bere burua divinizatu egin zuen, 'divi filius', jainkoaren seme bezala izendatuz. Horrela, gurtza inperiala bultzatu zuen, Augustori dedikatutako tenpluak eta gurtzak emanez. Helburu nagusia batasun ideologikoa ematea zen.

BOTERE MILITARRA

'Inperium maius' titulua eskuratu zuen, inperioko tropa guztiak kontrolatzea ahalbidetu ziona. Gainera 'triumphus', garaipenak berak bakarrik ospatu zezakeen.

Orokorrean, Augustoren boterea errepublikaren aurkakoa zen, oposizioa hilez lortu zuelako boterea eta hegemonia.

AUGUSTOREN PROPAGANDA

Ikonografia eta literatura erabiltzen zituen propagandatzat; irudiak eta txanponak, eta baita idazleek bere alde idatzitako poesiak ere.

'Saeculus aureum', iraganeko urrezko garaia zela adierazten du idatzi honek, Augustori erreferentzia eginez.

'Pax Augusta', Augustoren garaian irabazitako bakea gorai patuz.

'Res Gestae Divi Augusti', hiltorian zegoela idatzi zuen biografia inskripzio erraldoi batean, eta bertan Augusto jainkoak egindako gauzak azpimarratzen ziren.

Enperadoreari gurtza egiten zitzaion eta berari dedikatutako tenpluak zeuden hiri guztietan. Gainera, bere nahia zen etorkizunean ere bere irudi ona mantentzea.

ERROMAKO HIRIA

Augustoren eszenatokia izan zen Erroma eta bertako historiaren erpina zen Augusto. Bertako segurtasuna handitzearekin batera, apaindu egin zuen, hainbat eraikin eta elementu gehituz. Gainera, bertako plebea zaindu zuen gertutik.

ERREFORMAK

- Inperioko lurren antolaketa

Tropak inperioan zabaldua zituen eta lur horiek Augustok kontrolatzen zituen (probintzia inperialak). Beste probintziak herriarenak ziren, baina aginduekin kontrolatzen zituen.

Egiptoren kasuan, ez zen erromatar probintzia baina magistratu pertsonal bihurtu zen, Augustoren lurra baziren bezala jokatu eta zergak berarentzat hartzen zituen.

Inperioa ez zen askoz gehiago handitu eta muga naturalak ezarri ziren askotan (limes); Iberiar iparraldea konkistatu zuten. Elba ibaira eraman nahi zuten muga baina porrot egin zuten saiakeran, Rin eta Danubio ibaiak muga izanik. Ekialdean, partook zeuden eta hainbat porrot jasan zituzten. Hala ere, Augustok beraiekin negoziatu zuen eta erromatar estandarteak itzuli zituzten. Hori garaipen militartzat ospatu zuten.

- Armadaren erreforma

70 legiotik 28 legiora murriztu zuen armada (ondoren 25) eta ejerzito profesional eta egonkor bat osatu zuen, talde sozial espezifiko berri bat eratuz.

Hiritarren iraupena arautu zuen, ejerzituan egoteko, eta zerbitzu horren truke dirua jasotzen zuten, baita mugetako lurra ere. Soldadu izan bitartean, soldata jasotzen zuten, baina ezin ziren ezkondu ezta seme-alaba legitimorik izan.

Bestalde, guardia pretorianoa eratu zuen, Italia zein enperadorea babesteko ejerzituko gorputza zena. Talde horren burua pretorioaren prefektua zen.

Hiritarrak ez zirenak ejerzituan parte hartzen zuten, baina beste modu batean, auxiliatan integratuta, laguntza-tropak zirenak. 'Cohortea'k oinezkoak ziren eta 'alae', berriz, zaldunak.

- Gizartearen erreforma

Augustok gizartearen antolaketa aldatzeko ahalmena zuen, zentsore boterea baitzuen. Horrela, errepublikako formak mantendu zituen eta baita berriak sortu ere. Orokorrean, eliteek boterearen kudeaketan parte har zezaketen baina ez zuten zuzenean botererik izaten.

SENATUA>mantendu egin zuen baina 600 pertsonara murriztu zuen. Bertan parte hartzeko aberastasun-maila igo egin zuen eta heredagarria bihurtu zuen. Klase berri bat sortu zen barnean, 'ordo senatarius' zeritzona; horiek magistratura eta apaizgo batzuk betetzen zituzten, baina geroz eta botere gutxiago zuten Augustoren ondorioz.

Enperadoreak ondo eramaten ziren senatuarekin eta garrantzitsua zen, izan ere, erlazio txarra ematen bazen, senatuak enperadore txartzat ematen zuen hori, 'damnatio memoriae' dekretatuz. Horrela, hiltzean, enperadore horren gauza guztiak ezabatzen saiatzen ziren.

'ORDO EQUESTER', ZALDUNAK>2. mailako elitea ziren eta diru gutxiago manejatzen zuten. Ez ziren senatuan egoten eta enperadoreak geroz eta gehiago erabiltzen zituen, fidelagoak zirela uste baitzuen.

'ORDO DECURIONUM'>Dekurioiak, lekuan lekuko eliteak ziren, Erroma ez ziren hirietako gobernukideak. Inperioaren urbanizazioan garrantzi handia hartu zuten, eraikin publikoak eraikiz, boterea justifikatzeko.

ERROMAKO PLEBEA>erromatar hiritarrak, senatariak edo zaldunak ez zirenak osatzen zuten. Errepublikan boterea zuten baina inperioan dena galdu zuten, izan ere, magistratuak enperadoreak erabakitzen zituen eta legeak senatuak.

Hala ere, enperadoreak hainbat mekanismo martxan zituen plebea bere alde izateko, hala nola, gari banaketak ('frumentationes'), olinpiar jokoen ospakizuna edota azpiegituren eraikuntza.

CIVES + PEREGRINI>'cives' hiritarrak ziren eta 'peregrini' ez hiritarrak, baina inperioaren mugen barnean kokatzen zirenak. 3 hiritartasunen arteko desberdintasuna markatu zuten; PEREGRINI<IUS LATII (kolonia latinoetako hiritarrak, eskubide batzuk)<ERROMATARRA.

Komunitate latino batean 'ordo decurionum' eko parte bazen, hiritartasun erromatarra lortzen zuten.

I. mendetik aurrera, 'peregrini' batek erromatar ejerzituan 25 urte pasatzean erromatar hiritartasuna lortzen zuten.

212. urtean, CARACALLAREN EDIKTOA hitzartu zen, inperioko biztanle guztiei erromatar hiritartasuna eman ziena.

ESKLABOAK + LIBERTOAK>esklabu askoko garaia zen, eta esklabu bati askatasuna ematean ('manumisioa')LIBERTO bihurtzen zen. Hori gertatzean, erromatar hiritartasuna lortzen zuten,

eskubide politiko gabe. Augustori ez zitzaion hori gustatzen eta manumisioaren baldintzak gogortu zituen.

Liberto talde boteretsu bat egon zen, LIBERTO INPERIALAK zirenak eta enperadoretik gertu kokatzen ziren, gobernuko lana eginez (kontuak...).

Orokorrean, Augustok eliteei zuzendutako lege moralak egin zituen, eredugarria zena zehaztuz.

Horrela, luxua murrizteko legeak egin zituen, publikoki erakustea debekatuz. Ezkontza legeak egin zituen, legitimoak zirenak bakarrik bultzatuz. Eliteko jaiotzak bultzatu zituen, sariak emanaz seme legitimoak zituztenei eta ezkongabeak zigortuz. Gainera, elite batzuei ekintza batzuk debekatu zitzaizkien, hala nola, prostituzioa, gladiadore, musikari edo aktore izatea.

Alabaina, enperadoreen familietan ez ziren lege guzti horiek betetzen, eta lege horiek propagandatzat egin zirela pentsatu zuten batzuek.

GOI INPERIOKO DINASTIAK (K.o)

27-68→JULIO-KLAUDIOTARRAK gailendu ziren. Julio Augustoren familiagatik eta Klaudio Augustoren adopzioko seme zen Tiberioren familiagatik. Augustok ez zuen seme legitimorik izan eta Tiberio (emaztearen seme) adoptatu zuen. NERONEKIN amaitu zen aldi hau, bere buruaz beste egin zuela, ez baitzegoen ondorengotza arauturik.

69→1. Anarkia, 4 hautagai zeuden eta Vespazianok irabazi zuen.

69-96→FLAVIOTARRAK

96-192→ANTONINOTARRAK

193→2. Anarkia, hainbat enperadoregai eta Septimio Severok irabazi.

193-295→SEVEROTARRAK

- Antoninotarrak

Zilarrezko garaia protagonizatu zuten (Augustok urrezkoa) eta hainbat enperadore on izan zituzten; Trajano, Adriano... Probintzietako lehen enperadoreak izendatu zituzten, hala nola, Hispanian.

Garai honetan, hedapen handiena lortu zuten, izan ere, Trajanok Dacia (Rumania) eta Mesopotamia lortu zituen. Ondoren, mugak kontserbatzera mugatu ziren, izaera defentsiboa hartuz.

Ekialdeko erlijioak nagusitu ziren; Isis, Cibeles, kristautasuna...

Amaieran, krisi ekonomikoa eman zen hirietan, konkisten amaierarekin lotura izan zutena.

- Severotarrak

Botere militarri garrantzia eman zioten eta botere zibilak galdu ziren. Gainera, botere inperiala senatuaren aurrean indartu egin zuten eta senatua ez zuten batere zaindu.

Enperadoreek pertsona bezala boterea galdu zuten, gazteak eta ahulak baitziren eta gortekoek eskuratu zuten botere hori (emakume batzuk ere, ama...).

Probintziak geroz eta botere gehiago lortzen ari ziren Italiarekiko eta mugetan erasoak hasi ziren, inperioak babesteko beharra zuelarik. Azken enperadorea hiltzean, anarkia orokortu bat eman zen, 50 urtez enperadoreen arteko gerrara eraman zuena. Horrela, GOI INPERIOAREN AMAIERA eman zen.